

# BIDANKOZARTE

Lege gordailu: NA 2365-2015

## Bidankoze hiriko aldizkari historiko-kulturala

### Edukiak

- Sare sozialak..... 1
- Basoberritze ..... 1
- Iñaute garaia ..... 2
- Molière Bidankozen..... 2
- Sasizenez eta etxeko izenez ..... 3
- Ustezko sasizen-irainak  
Bidankozeko etxe-izenetan ..... 3
- Bidankoze 1917an..... 4
- Gerra zibilak markatutako  
kintoak ..... 4

Kontaktu: bidankozarte@yahoo.es

Eduki gehiago:

[www.vidangoz.com/bidankozarte/](http://www.vidangoz.com/bidankozarte/)

Facebook

Twitter



### Sare sozialak

Joan berri den urrietan Bidankozarte ekimen honek sare sozialetara egin du jauzi eta dagoeneko Facebooken zein Twitterren badago.

Urrats honek, alde batetik, hedapen handiagoa lortzea du helburu, eta bestetik, Bidankozarteko jarraitzaileekiko komunikazioa erraztu.

Sare sozialetako mezuak laburrak direnez, bertan mota askotako informazioak eskainiko dira, haietako askok orain arte *Bidankozarte* aldizkaritxoan beharbada ez dute agertzeko aukerarik izan.

Era berean, argitaratutako sarrera batzuk gero boletin hauetan agertuko dira, nahiz eta haien edukia ez egokitu aldizkari ohiko atalekin. Zenbaki hau horren adibidea izango da.

Ea zer iruditzen zaizuen eta anima zaitzte gure jarraitzaile izaten bai Facebook-en bai Twitterren.



### Basoberritze

Oro har, iraganean alor guztietan orain baino garapen gutxiago zutela usteko joera izan ohi dugu eta guztia duela gutxi *asmatu berri dugula* uste izaten dugu.

Moderno eta *ekologisten kontua* den gaitako bat basoberritzearena da. Eta hau izango da okerturik gauden gaitako bat, izan ere, antzinatek gure herrietan basoberritzeak izandako garrantziaren ondorioz, jarduera hau guztiz arautua zegoen, eta erabilera desegokiagatik jarritako isunak eta gehiegikeriak hitzetik hortzera zeuden.

Era berean, eta gure arbasoek beraien ingurunea guk baino askoz hobe ezagutzen zutela kontuan hartuz, denborarekin basoa bakarrik birsortuko bazen ere, berreskurapen hau zuhaitziaren landaketaren bidez bizkor zitekeela bazekiten.

1917ko otsailaren 16ko *Diario de Navarra*ko artikulua batek Bidankozeko Udalak hainbat zuhaitz landatzeko asmoaz hitz egiten digu, kasu honetan ez ziren baso-arbolak baizik eta fruta-arbolak (nahiz eta artikuluan bertan basoberritzeaz hitz egin).

Modu honetan, Udalbatzak herriko inguruko mendietan 150 intxaurren landatzeko akordioa onartu zuela

aipatzen da, eta langile adituek jada lan hori egiten ari zirela.

Beste alde batetik, eta ildo honetan sakonduz, landatzeko kemen horrekin jarraitzeko asmoa zegoela adierazten zen eta Udalak Diputazioari 400 edota 500 fruta-arbola eskatu zizkiola eta eskaera arazorik gabe onartua izatearen konfiantza zuten.

Ez dakigu intxaurren eta fruta-arbola horiek guztiekin zer gertatu izan litzateke baina niri horrenbeste intxaurren (eta askoz gutxiago fruta-arbolak) gaur egun arte iritsi ez direla iruditzen zait.

Azkenik, eta gai honi buruzko adibide adierazgarriago bat emateko, 1757ko lege nafar batek (*Bidankozarte* blogean kontsulta dezakezuen) gure herrialdean zuhaitzak landatzeko gaia jorrotzen zuela eta horretan Erronkarin 'haritzak, pagoak, intxaurren, izeiak eta gaztainondoak' landatu beharko direla adierazten du, zuhaitz horien kokapenari buruzko hainbat argibide ematen ditu gainera. Garai hartatik espero genezakeenerako, oso legedi aitzindaria.

Bada, birlandatze eta basoberritzeak ez dira duela gutxi *asmatu* dugun zerbaite.



## Molière Bidankozen

Iñautea festa paganoa izan da berez, edo behintzat horrelako izendapena jarri ohi izan dio Elizak, ziurrenik bere agintepean gelditzen ez zen festa gutxienetariko bat zelako. Honengatik, elizgizonen artean ez zuen harrera onik iñauteak.

Ba duela mende bateko iñautean Bidankozeko orduko apezaren salbuespen bitxia aurki dezakegu. Ausentzio Jimenez zuen izena eta iñauteak onartu ez ezik, ospakizunetan parte hartzen zuen

Izan ere, 1917ko otsailak 24ko *Diario de Navarra* kontatzen duen bezala, apezak, jendez lepo zegoen Bidankozeko Udaletxean gazteek antzetzutako antzerki bat prestatu zuen. Antzetzlana Molière-ren 'El médico a palos' komedia izan zen eta ekitaldien artean Babil Aiestaran idazkariak pianoa jotzen zuen.

Bitan antzestu zuten antzezlan hau, iñauteetako igande eta asteartean, eta aktoreentzako lehen aldia zen arren, arrakastatsua izan zela diote.

Gehientzako ezezaguna izango den pasarte bitxi honek, On Ausentziok zuen ekintzaile grinaren beste adibide bat uzten digu. Bidankozen sei urte eskas pasa arren, bere eliztarrak begiko zuten, izan ere hainbat ekimenen sustatzailea izan baitzen, Kontsumo Kooperatibarena, besteak beste.

## Iñaute garaia

Neguan sartzen ari gara eta aro honetako zati bat iñauteari lotutakoa da; pozarekin eta elkarren arteko gozamenarekin erlazioz atutako garaia. Gure herrian antzina nola ospatzen zen inguruko ezer gutxi dakigu, ordea.

Duela urte batzuk herriko adinekoei egin nizkien elkarrizketetan zipoteroak gogoratzen zituzten batez ere, lastoz betetako zakuz jantzitako gizonak, bizkarrean ezkila pare bat zintzilik, aurpegia trapu batekin estalita zeramatenak eta txapel handi bat jantzita (mariatxiena bezalakoa, batzuen hitzetan). Eta gainera, makil luze eta beldurgarri bat eramaten

zuten, bidean aurkitzen zuten guztiari jotzeko, neskei bereziki. Gogoratzen zuten beste gauzetako bat puska-biltze moduko bat egin, eta biltzen zutenarekin gazteek askaria egiten zutela. Baina ezer gutxi gehiago dakigu.

Ba gure haranean orokorrean eta gure herrian zehazki, zortea izan dugu, izan ere, kokapen geografikoari esker (isolatua) eta gure izaeragatik, gure elementu kulturaletako asko gure inguruko beste toki batzuetan baino gehiago iraun zuten. Bestalde, hainbat adituk, gure bailaran informazio iturri handia aurkitu zuten eta egindako lanek gure antzinako bizi modua gogoratzeko aukera ematen digute.

Horrela, Bernardo Estornes Lasa izabarrak egindako lana hainbat eremutan, Louis Lucien Bonapartek uskararekin, Resurreccion Maria de Azkuek uskaraz eta etnografiaz, eta Juan Garmendiak gai etnografikoetan aipa ditzakegu. Noski, askoz gehiago badaude, baina aipatutakoek Bidankozerekin harreman handiagoa

izan zuten.

Bada, Azkuek kasu batean jasotako ari esker, Bidankozeko antzinako iñauteen nondik norakoak azaldu ditzakegu. Horrela, 1967ko otsailaren 16ko *Diario de Navarra*, *Nafar-izkuntza* izeneko orrialdean, Nafarroako hainbat eskualdetako iñauteen inguruko xehetasunak ematen zituen, Resurreccion Maria de Azkuek 1935 eta 1947 urteen artean *Euskalerraren Yakintza*-n argitaratutakoan oinarrituz. Kontakizuneari, Bidankozen Garizumaren aurreko hiru ostegunetan zenbait askari ospatzen zirela azaltzen du: *aitakunde* (aiten bilkura), Garizumaren aurreko hirugarren osteguna; *amakunde* (amen bilkura), Garizuma aurreko bigarren osteguna; eta *orokunde* (guztien bilkura), Garizuma aurreko osteguneari.

Askari hauetaz gain, gure bailaran *oilokunde* (oiloren bilkura) izeneko festa ere ospatzen zela aipatzen da. Bertan, umeek begiak estalita eta makil bat eskuan zutela, hiru kolpe, hiru saiakera zituzten oilo bat hiltzeko eta helburua lortzen zuenak oiloa jaten zuten irakaslearekin batera.

Oilokunderi buruz galdetuta, Mariano Mendigatxak 1915ean zioen ez zuela ulertzen zeri buruz ari zen Azkue hitz hori aipatzerakoan, beraz, litekena da Bidankozen beste izendapen bat izatea edo bestela festa hori ospatu ez izatea ... edo besterik gabe, beharbada, garai horretan jadanik Marianok burua bere onean ez izatea, bere azken gutunek egiaztatzen duten moduan.

Orain gure antzinako iñauteen inguruko zeozer gehiago badakigu.





## Sasizenez eta etxe-izenez

Azken bost urtetan oikonimia atalean argitaratzen joan den bezala, Bidankozeko etxeak, nahiz beste herritakoak orohar, talde ezberdinetan sailka daitezke beraien izenen jatorriaren arabera:

1.- Emandako une batean etxeko jabearen izen edo abizenaren arabera aipatzen direnak. Gure herrian aurkitzen dugun eredu arruntena da. Talde honetan honako etxeak zeuden: *Paskel*, *Fuertes*, *Salbotx*, *Arriola*, *Diego*, *Matias*, *Pantxo* edo *Bernabe* (adibide bana auzo bakoitzari, izen bati eta abizen bati lotuak), baita ere *Montxonena*, *Hualderna*, *Santxena*, *Danielna*, *Angelena* (*Jose Maria* etxearen aintzinako izena), *Anarna* edo *Refelna-ena* edo *-rna* euskarazko atzizkiak, azken izen hauen aintzinasun handienekoak izanda.

2.- Etxeko jabearen garai bateko lanbideari erreferentzia egiten dioten izenak. Arestian aipatutakoak baino maiztasun txikiagoak. Horrela bada, *La Herrera* etxea dugu (egun lur saila), *Arotx* etxea (egun *Arbizu* etxea), *Pelaire* etxea, eta abar...

3.- Izena herriko haien kokapenari zor diotenak, Bidankozen hain ohikoa ez dena, baina adibideren bat egon badago, nahiz eta gehienak berriki eman diren. Horrela, bada, *Malkorna* etxea dugu sailkapen honetako aintzinako adibidea, eta honi azken hamarkadako eraikitako edo berritutako etxeen izenak gehitzen zaizkio, toponimiatik hartutakoak hainbat kasuta: *Peñeta*, *Landeta*, *Iturriondo*, *Bilizar*...

4.- Beraien ezaugarriren batengatik izena jasotzen duten etxeak. Bidankozen ia ez dago mota honetako izenik, baina *Txikia* (edo *Txikiborda*) eta *Harretxe* etxea adibidetzat jo ditzakegu.

5.- Etxeko baten baten izengoitiagatik ezagunak ziren etxeak. Egungo ikuspuntutik, talde honetako etxeak identifikatzea zaila dugu, eta askotan etxe baten izen bat edo beste ezizen batean jatorri izan zezakeela pentsa dezakegu, bere esanahia ezezaguna baldin bazaigu ere. Talde honetan *Bonba*, *Kurlllo* edo *Mux* sar genitzake, baina hauen jatorria kasu hoberenean irudikatzea besterik ez egin dezakegu.



Hortaz bada, goitzenetan oinarritutako etxeizenen inguruan, orain dela gutxi artikulu bat topatu dut Bidankozeko etxeen inguruan argia eman dezakeena, kasu gehienetan etxeen aintzinako izendapenetan oinarritua. Artikulua, Joseba Aurkerenak euskaraz idatzia da eta naiz.eus-en argitaratua, '*Erronkarierazko irainak*' izenburua daramana eta Bernardo Estornes Lasaren '*Español- Erronkariko Uskara hizteg*'tik jasotako hitzak direla adierazten da. Jakina, izengotiek askotan oinarri irriarri edo barregarria dutenez, irain askok aintzinako izengoitietan dutela isla pentsa daiteke.

Ondorengo koadroan, Bidankozen topa ditzakegun izen batzuk.

## Ustekozko sasizen-irainak Bidankozeko etxe-izenetan

- *Andisko* (handiki, harroxko) ziurrenik *Pantxo* etxeko aintzinako izenaren jatorria, alegia, *Andixko*.

- *Argilla* (argala, ahul) agian *Arlla* etxearekin uztartzen da (saia zaitezte Argilla azkar ahozkatuz).

- *Axari* (erdi mozkorra esan nahi du bere adieretakoa batean, literalki azeria bada ere zaraitzuarrek erronkarikoak izendatzeko erabilitako izengoitia ere bada) ziurrenik *Paskel* etxeko aintzinako izenarekin ere harremana du, *Axairna* etxearekin (agian *Axarirna* >> *Axairna* ahozkoaren bilakaera, *Aristu* >> *Aisturen* antzera).

- *Baldragas* (baldarra), Ustaizetik ekarritako izengoitia izan daiteke, desagertutako *Kosme* etxeko izen bat zen (*Pelairea etxe zaharra*). *Kosme* *Pelairea* *Villagoiz*, esaten denez, Ustaizeko *Baldragas* etxekoa zen jatorriz, eta batzuk era berean izendatzen zuten Bidankozeko bere etxea.

- *Gaizo* (gaixo, inozo, ergel, apal, memelo) litekeena da *Paskel* etxeko beste aintzinako izen batekin lotura izatea, aintzina *Gaixo* etxea izena izan zitekeena (ahozkoan *Gaizo* >> *Gaixo* bilakaera izango zuena, *Zoko* >> *Xoko*, *Zapatero* >> *Xapatero* edo *Monzon* >> *Monxon* adibideetan bezala).

- *Makur* (ergel), *Makurra* etxekoek etxearen izena bertan bizi izan zen konkordun bati zegokion diotenez, okertua eta euskaraz esaten den moduan makurtua zihoalako. Erronkariko irainen zerrendan esanahi maltzurrago batekin ere aurki dezakegu;

- *Murri* (gaizto, madarikatu, maltzur, marmarti, muzin, tratagaitza, modorro), desagertutako *Montes* edo *Garin* etxeko aintzinako izena zen;

- *Muzka* (ahul, gaixobera) *Mux* etxeko izenaren jatorriarekiko lotur izan liteke.

- *Txantxulit* (txoriburu, kaskarin, ganoragabe) *Txantxolit* etxearen historiaz aritzean jorratutako izengoitia da.

## Bidankoze 1917an



Felix Paskel eta Tomasa Ornat, 1917ko bikote bakarra  
Argazkia: Santiago 'Kalderero' argazki funtsa

Ikuspuntu demografikotik 1917. urtea ez zen ona izan Bidankozen. Jende gehiago hil zen (hamahiru) jaio zirenak baino (hamar). Joan zirenak ere batu behar ditugu, urte horietan jende askok jo baitzuen Argentinara. Beraz, urte horretan populazioa jaitsi egin zen. Europa *I. Mundu Gerran* murgildurik zegoen eta honek ekarri zuen bai ume gutxiago jaiotzea (hamarkada horretan urtean 14 jaiotzen ziren batez beste) baita emigrazioa areagotzea ere. Bizi baldintza txarrek ere eragina izango zuten hildakoen kopuruan. Urte hartan 13 pertsona hil ziren. Hamarkada horretan, berriz, batez bestekoa zortzi izan zen. Ezkontzei dagokienez ere urte eskasa ere: bakarra ospatu zuten. 1910eko hamarkadan batez bestekoa 3,5 izan zen. Urte hartan jaio, ezkondu eta hil zirenak kronologikoki aurkeztuko ditut eta honekin batera zein etxetan jaio eta zeinetara ezkondu ziren ere bai.

1917an

jaiotakoak

ondorengoak izan ziren: Beremundo Artutx Urzainki [*Maisterra*], Abundio Sanz Sanz [*Danielna*], Anastasia Artutx Jimeno [*Largotena*], Prudentzio Landa Arguedas [*Arotx*], Domingo Hualde Gaiarre [*Pelaire*], Dionisio Mainz Landa [*Mux*], Norberto Juanko Perez [*Paxapan*], Kasta Sanz Hualde [*Jose María*], Esteban Sanz Urzainki [*Arguedas*] eta N. Perez Sanz [*Santxena*].

Jaio zirenen artean, beste urteetan bezala, denetarik egon zen: *Santxenakoak* izenik ere ez zuen izan jaio berria hil baitzen. Antzeko bidea hartu zuten Prudentziok (lau hilabeteekin zendu zen) eta Kastak (*Jose Maria* etxeko lehen alaba zen eta bi urteekin hil zen). Horietako lau etxeko lehen seme-alabak izan ziren: Beremundo, Abundio, Domingo eta Kasta. Hauetariko inork ez zuen etxea oinordetu. Beremundo *Gerra Zibilean* hil zen, Abundio erlijioso izan zen, Domingo Ameriketara joan zen eta Kasta bi urterekin zendu zen. Aipatu behar da heldua izatera emakume bakarra iritsi zela, Anastasia Artutx, mende bat egiteko bidean dagoela (2017ko apirilaren 21ean ehun urte beteko baititu), bere amak egindakoa errepikatuz, Donata Jimeno Ornatek 1991ko abuztuaren 7an muga bera gainditu baitzuen, *Bidankozarteko* 20. alean aipatu genuen bezala.

Ezkontzen atalean, bakarra daukagu: Felix Paskel Salbotx [*Paske*] eta Tomasa Ornat Arguedasen artekoa [*Algarra*]. Bikote honek sei seme-alaba izan zituen.

Hildakoak hauek izan ziren: Frantziska Perez Mendigatxa 83 urterekin [*Mailusa zaharra*, gaur egungo *Udaletxea*], Juana Monzon Juanko 74 urterekin [*Monxon / Artutx*], Felipa Maio Urzainki 16 urterekin [*Rakax*], Ziriako Landa Urzainki bi urterekin [*Arriola*], Juana Miguela Mendigatxa Aroza 73 urterekin [*Maizena*], Eladio Urzainki Perez 7 hilabeterekin [*Kostio*], Gregoria Glaria Maio 88 urterekin [*Llabari*], Prudentzio Landa Arguedas 4 hilabeterekin [*Arotx*], Markos Urzainki Aroza 69 urterekin [*Pantxo*], Pedro Hualde Jimenez 28 urterekin [*Pelaire*], N. Perez Sanz 0 egunekin [*Santxena*], Domingo Mainz Artutx 67 urterekin [*Artutx / Molena*] eta Frantziska Ginda Garate 62 urterekin [*Kurillo / Gaiarre*]. Hil ziren lau umeak (ohiko kopurua garai hartan) albo batera utziz gero, beste bederatzietatik bi besterik ez ziren gazte hil (Felipa eta Pedro). Gainerako zazpiek zahartzarora ezagutu zutela esan daiteke. Gregoria 90 urtetara hurbildu zen, gaur egun ehun urte betetzea bezala izango litzatekeena.


Hori guztia gertatu zen Bidankozen 1917an.

## Gerra zibilak markatutako kintoak



Beremundo Artutx Urzainki [*Maisterra*], 1938/05/17an zendua

Heldutasunera iritsi ziren sei gizonetatik bost, *Pelaireko* Domingo izan ezik, gerrara joan ziren kinto zirelako liskarra piztu zenean. Gatazka belikoak kinta hau markatu zuen, Beremundo hil baitzen eta Abundio hirutan zauritu izan zelako. Beste hirurek ere (Dionisio, Norberto eta Esteban) gorriak ikusiko zituzten, ziur asko.



Abundio Sanz Sanz [*Danielna*], 3 aldiz zauritua